

Tolerantzia ditzosozkoa

*“Ni ez naiz, ez, oso tolerantea.
Egia esanda, ez naiz batere tolerantea”.*

hogeitaka urte daramatzat irakaskuntzan; hezkuntzan esan ahal izatea nahiko nuke. Eta eguzkia denontzat ateratzen omen den mundu txar honetan ez dela ezer berririk gertatzen sinestarazi nahi zaigunean, begira nolako aitopena. Goian irakurri duzun hori hamazazpi urteko ikasle bati entzun diot berriki. Nere harridurazko begirada baino zerbait gehiago merezi zuen aitopen harek.

Egun denok gara tolerante. Denok demokrata garen bezalaxe.. Zu, beste hura, hemengo eta hango guztiak, eta ni ere bai, noski. Oso inportantea da tolerantea izatea. Lehen-lehen mailako bertutea da, denon ustez. Euskara zaharragoan nola esan ere ez dakigu, ‘jasankortasuna’ baino askoz gehiago baita. Denok garenerako ez bide da, gainera, oso zaila ere. Zer dela eta izan behar du, bada, zaila? Intolerantziak ba al dakar, bada, ezer onik?

Gure Euskal Herri txikiko elkar bizitzak, konbibentzia moduak, zuhaitza bere frutuetatik ezagutzen da delakoari helduz gero, **bestarik erakusten du oso.** Euskaldun hitza nori opa ere ez dakigu hemen garbi, herri bati nola deitu ere ez, aldiz; gure mundu humanoa sarriegi gu eta gutarretara mugatzen da, zenbaitzuekin esplikazioetan aritzeak ere ez duela merezi, berriz, gero eta segurua gu dakigu, eta batez ere - hauxe batez ere - errudun, guztiaren errudun, besteak dira beti. Hori bai, eta eskerrak!, tolerantziaz gabiltza gu ongi eta primeran, denon eta guztion zorionerako.

Tolerantzia, gizateriak bereganatua dezakeen modu eta maila apalean ere, **ez da gauetik goizera lortutako emaitza izan.** Erroman bertakoak ez zirenak, barbaroak ziren; elizak herexek erre egiten zituen; iraultza frantsezak, libere eta fraternité eta delakoak frantsezentzat predikatzen zituen, ...edo frantsezten zirenentzat. XX.mendeko adibiderik ere (gaur-gaurkoak barne) asko nekatu gabe aurki daiteke. Intolerantziaren eta borrokaren gainean erakia izan den gure Europan, Ilustrazioaren ondorioz garatutako baloreen fruitu izan da tolerantzia, teoria mailan ere.. Erlijioek ere bereganatu beharrean aurkitu izan diren emaitza laikoa da, beraz. Emaitza zorionekoa. Heldu ezinik galtzen den emaitza, ordea, sarri. Ia beti. Tolerantziak, nonbait, lur gozoa eta ongari onak behar ditu garatu ahal izateko.

Ondo jandako lur landu horrek izango lituzkeen adierazgarri zenbait agertu nahi nituzke hemen. Horixe bakarrik. Horietako batzuk bakarrik.

Tolerantzia ez da behin ere ahulezia eta debilitatearen emaitz. Inoiz ez. Hori hasera haseratik esan behar da, garbi. Bestetarako indarge sentitzen naizelako, eraman, nozitu bakarrik egiten dudanean zerbait, gogoz kontrako ahulezia izkutatu eta goxatzeko nahi izan dezaket tolerante naizela pentsatzea, halaxe naizela esan ere bai ozen, baina horrek ez du tolerantziarekin zerikusirik.. Tolerantzia, beti, jarrera aktiboa da. Jarrera indartsua. Erabaki baten ondorio, beti. Besterik egin, edo bestela joka nezakeenean, jarrera intoleranteetako modu eta gaitasunik dudanean eta izan arren, alegia, konbezimenduz eta moralitatez hartzen dudana jarrera aktiboa eta indartsua. Indartsua, bai, zaila izaten baita, gehienetan; alderantzizkoa baino zailagoa, seguru-seguru.

Tolerantziaren esparrua mugatu egin behar da. Ez da beti erraza, baina hortan ari beharra dago etengabe. Noiz, norekin, zertan eta zertarako izan behar da tolerante? Zergatik, gainera? Begira, lehenik, zergatik eta zertarakoari erantzuna, bi hitzetan: Hiritarrak garelako, eta gaur, zorionez, hiritar izateko era asko daudelako. Giza eskubideen berri dugunetik garbi dagoelako legeek — eta zure edo nere muzinek — harrapatu behar ez duten bizi-esparrurik badagoela, badugula. Zabala, gainera. Gero eta zabalagoa nahi genukeena (genezakeena), egitasmo, siniste, irizti eta abarri dagokienetan. Legeek inori nahi gabeko kalterik egin ahal izatea eragotsi behar dute. Eta eragozte mailan, behintzat, ezer gutxi gehiago. Hortik aurrerako eginkizuna, behar gehiena dutenei laguntzeko bideak irekitzean lukete. Horretan, berriz, mugak ezarri beharrik ez da izango, seguruenez..

Noiz eta zerekin (norekin) izan behar genuke tolerante? Edozerekin? Edozerekin ez, noski; inola ere ez. Edozer onartzen duenari, funtsean guztia zaio berdin. Hau denok dakigu, pentsatze-ra jarri orduko. Baina, erraz, lasai eta kurioso tolerante iaioa sentitzeko hauxe da erarik emankorrena. Hau edo hori egiten dutela? Bost axola niri!



Hau edo hori agertu edo aldarrikatzen dela?. Allakuidaos! Ni ez naiz hemengoa. Nik dena errespetatzen dut. Ni ez naiz inorekin (ezerekin) sartzen. Jarrera errazaz aparte, komenientzia-zkoa bihurtzen dugu hau, uso azkar. Ezeren aurrean erreazionatzen ez dudanez, eskuak nik garbi ditut beti, eta dagoen egoerari heltzea komeni zaidanerako ere -edozein injustiziarri, alegia,- (egoera honetan denok aurki gaitezke, maizegi) tolerantziaren aitzakia beti eskura izango dut. Axolagabekeria, komenientzia eta ...etsipena tolerantziaren jateka (jatzeko bidea ematea) izan da egungo mundu "ez-dakit-nolakoak" egin digun ("ez-dakit-nolakoan" egin dugun) iruzurrik sakonena. Eta injustizia pairatzaileentzat, kaltegarriena ere, bai. Nik halaxe uste dut. Horregatixe heldu diot gai honi, gaur. Injustiziarekin, edo-nolako delarik ere, ez daiteke tolerante izan. Hori axolagaberia da, edo eta komenientzia. Guztiz bestelako zerbait. Tolerantzia zintzotasunaren emaitza da.

"Iritzi mailan, ordea, bai, hor bai. Pentsatzeko askatasuna edonork baitu. Hor dena da errespetagarri. Gustatzen zaizuna bakarrik, ez noski. Gustagarri eta atsegin ez zaizun horretxek probatzen du

zure tolerantzia maila". Hauxe da egun, behin eta berriz, entzunarazten zaiguna. Eta gustagarritasun eta frogari buruz dioen horretan arrazoi du, gainera. Iritzien errespetagarritasunez ari denean ez, ordea, nik uste. Tolerante izateko ez dago ohetik jeikitzerakoan burua mesanotxean utzi beharrik. Eta iritzi guztiak errespetatzeko halatsu egin beharko litzateke. Lehengo denboratan hala egin beharko zen. Gaur bai, behintzat. Iritzi guztiak ez dira errepetagarriak, inola ere.. Juxtu alderantziz da, berez. Iritzi bat bera ere ez da, besterik gabe, iritzia delako, errespetagarria. Iritziak errespetao irabazi egin behar du.. Hori egiteko gai bada, orduan bihurtzen da errespetagarria. Binbitartean, ez. Errespetagarria izan daiteke, noski, gustokoa ez bazait edo mingarri bazait ere. Hori, bai. Baina inteligente eta zentzudun (kritiko) izateko ahaleginari uko egiteko ez zait ezereen izenean esigitu behar. Nik zenbait iritzi ez daukat zertan onarturik, eta ez dut, inola ere, errespetatzen. Milaka aipa daitezke haetakoak; geurerik ere bai, tartean. Iritzi guztiak errespetatzea inozokeria da, ez tolerantzia. Erraza gainera inozokeria, hau beti izan ohi denez.. Zein iritzi edo arrazoiketako balio gehiago duen aztertzen nekatu beharrean inoiz jarriko ez zaituena.

Iritzia ez, iritzi-emaile den pertsona da errespetagarria beti.. Iritzirik negargarri eta kaltegarriena plazaratzen duenean ere, bai. Gizakia beti errespetatu behar da; giza duintasuna berezkoa dugula erabaki dugulako, besterik gabe. Giza eskubideak asmatu ditugulako, eta, ondorioz, errespetatu egin behar ditugulako. Ez dago besterik. Baina bada nahikoa. Hauxe da giza intelijentziak jakintza mailan eman duen emaitzik ederren eta beharrezkoena. Hauxe, orbita etikoa sortzen duena, eta, ondorioz, zuzenbidean zuzeneko den guztia dakarguna ere. Hori onartu ezean, hori baztertu ezker, alperrik dira hemen kontuak: indarra nagusi, naturaren legea nagusi, ez etikarena. Iritzi-emailearen eskubideak onartzen badira, berriz, iritziak libreki adierazi ahal izatea posibilitatzen duen markoa ere errespetatu egin behar da beti. Batak bestea esigitzen duelako.

Pertsona eta bere iritzia bereizi ezin dituenak, berak pentsatu beharko du zergatik gertatzen zaion hori, eta berak., atakatik nola atera ere, pluralismoa uniformitate bihurtu beharrean gerta ez dadin. Nire iritzien aurka altxatzen denak - berdin zait nire iritziei irri egiten badie ere -, ez nau ezinbestez ni iraintzen (ezinbestez diot; zenbait kasutan ezberdintasuna adierazten oso kontu berezia izan beharko baita; batez ere, honengatik edo horregatik, bereizketarako gaitasun gutxi dutenekin). Akabo bestela! *"Extra ecclesiam (uniformitatem) nulla salus"* berriro. Pertsona eta honen jokabide eta jokamoldeak ere bereizterik ez balego -badakit iritziekin baino zailago dela-, giza-eskubideak ez liriateke giza-eskubide, zenbait gizakien ordain-sari baizik. Hiltzaile, arerio, eta beste hainbatek ez lukete halakorik mereziko. Badakit ondo, hau praktikan sarriegi halaxe gertatzen dela, tamalez.

Astunegi, eta batez ere ilunegi gertatzen ari naitekeenez, motz aipatuko ditut tolerantzia lantzeko beste zenbait baldintza txiki baina inportanteak. Jarrera mailakoak dira hauek, nagusiki. Aspalditxoko (1972/3ko) gertakizun bat kontatuko dizut horretarako, neri neuri lezio inportante gerta zitzaidana, egiaz: Edadean aurrera samar zihon gizaseme ezagun bat behin Coran-aren esplikazio liburu bat eskutan zuela topatu nuen, kalean. Arantzazuko kalendarioaz kanpo ezer gutxi irakurritakoa izango zen ordurarte gizaseme hura. Nere harriduraz azkar konturatu zen eta hauxe esan zidan: *"Lanera etorri zaigun marrokiar bat ezagutu diat, eta ,lehengo batean, bere fedearen suaz guztiz harriturik nengoelako - Ramadan garaia izaki - galdezka hasi nintzaioan ni, eta liburu hau ekarri zidak gaur leitzeko. Asko ez diat*

entenituko, baina beti duk ona bestek zer pentsatzen duen jakitea, guztia ez dela gurearekin bukatzen konturatzea". Bai, halazangoa! Neri, behintzat, ezagun honen jarrerak asko lagundu zidan, premia ere banuen eta, ikuspegi hori barneratzen. Izan ere, holako edo honen antzeko jarrerarik gabe nekez gara daiteke tolerantzia. Ezagutza gogorik gabeko buruak, besteren arrazoi munduarekiko inolako kuriositate eta interesik ez duenak, nekez irtengo du oso, "nereak (gureak) bakarrik balio du" zorionekotik; eta inoiz irtetzen badu, fijo, "guztiak berdin balio du" delakora pasatzeko. Jarrera biak oso ohizkoak eta erosoak dira, baina, tolerantzia bietan, noski, auzoan gelditzen da. Auzoan ere ez. Guztiz urrun.

Egia esango dizut, heziketa lanean neri ezer gutxi estutzen dit arnasaldia gehiago, bestela pentsatzen duenari bere iritzia adieraztera (eta, noski, entzutera) ere estenditzen ez den 17/18 urteko gazteak baino. Zertarako nekatu? Ez du merezi! Alper-alperrikako elkar-hizketa litzateke. Eta halaxe da, izan ere. Egiazko elkar-hizketa norberarekin egiten dena baita. Besteekin egiten duzun hizketa, posible, egiazko, baliagarri eta ezinbesteko gertatzen da, zeure buruarekin hitzegin beharrera ekar zaitzakeelako eta zaitzakeenean. Zeu zerbait berria ikasteko irrikan edo posibilitatean jartzen zaituenean. Egiaren jabe ziur kontsideratzen bazara, ordea, hau dena txistea da, eta horrela tolerantzia izan zaitzakeela pentsatzea ere bai, klaro. Eta gure herri santu honetan hain ohizko izan ditugu (ai, gaur, 'izan' hori kendu beharrik ez banu!) egia borobil, guztizko eta behin betirakoak. Hain gaude horietara ohituak! Zer ziurtasun eta lasaitasun damaigun, izan ere, horrek, pekeño jendeoi!

Gauza inportanteenak bizitzan, ederren diren haiek, batez ere, itxuraz bakarrik omen dirudite errazak. Tolerantziarekin ere halaxe gertatzen da. Esanak esan, tolerantziako jarrerak hau baitu onartu beharrekoa oinarri-oinarrian: *neure uste, ikuspegi eta pentsakera oinarritzkoenetan bat ez datorrenarekin duintasun osoz egin dezakedan bakarra zera dela, alegia, entzun, nere kritika eta ikuspegia pertsonarekiko ahalik eta errespeto gehienez adierazi, eta, hortik aurrera, garbi izaten ahalegindu, pentsakera eta ikuspegi ezberdengatik norberak sufritzea hobe dela sufriaraztea baino. Jakintza zaila, noski.*

Jakintza honen jabe, jaio ez da inor egiten. Gure herri honetan ikasten ere ez dago erraza. Saiatzeak mereziko du, hala ere. Denon mesedetan genuke. Luzera, eta motzera.